

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

“Azpituduluak Euskaraz” webgunea abian

LUISTXO FERNANDEZEK abian jarri duen webguneak batez ere euskarazko azpituduluaren fitxategiak trukatzeko gunea izan nahi du. Euskarazko azpituduluaren fitxategiak kargatu daitezke eta guztiz euskaratuta ez daudenak itzultzeko proposamenak egin. www.manterola.org/azpituduluak

Euskara egiaztagiriez

ROBERTO ALKARTERRIK erabili.com-en Eusko Jaurlaritzak onartutako euskara egiaztagirien baliokidetzaz iritzi artikulua osatu du. Alkarterrik egiaztagirien sisteman zazpi hutsune aipatu ditu: Izendapena, Datuen zentralizatzea, Datu historikoen balioa, Atariko probaren beharra (edo ez), Mailak giltzarri izatea, Deialdi kopurua, Agirien iraungitzea.

Txekeari ezetz, galesez dagoelako

BARCLAYS BANK- EK galestar talde batek aurkeztutako 22.000 librako txekea lau aldiz atzera bota du galesez idatzita zegoelako eta ez zekitelako nola itzuli. Gales zaleek gertaera baliatu dute beste behin aldarrikapenerako: esparru pribatuan galesa erabiltzeko legea egin dezatela.

TALAIAN

Zikoizkeria finantzarioa

Iragan astean lurrikara finantzario berriaren lekuko izan gara. Lurrikara horren ondorioak ezezagunak dira oraindik, eta ez sorburu izan zuen AEBetan soilik, baizik eta mundu guztian; ekonomia amerikarra gaixotzen bada, mundu guztia kutsatzen baitu. Joan den astean historiako hondamen handiena gertatu zen, Lehman Brothers-ena, 430.000 milioi eurotako zorra-ekin. Hondamenak 25.935 langileei eragin zien, eta 100.000 erakunderi, inbertsio fondoei eta pentsioei. Ez da lehenengo banku porrota izan, eta ez da azkenekoa izango. Larri dagoen beste banketxe amerikarra, Merrill Lynch, azken unean Bank Of America-k bereganatu zuen. Ondorioz munduko burtsa guztia erori zen eta kolapso finantzarioa eragin. Banku zentralak, hondamendi okerragoa sailhestu nahian, likidezia gehiago sartu behar izan zuten.

Zein da egoera horren giltza? Bankarien zikoizkeria, eta horri bide ematen dion sistema kapitalistaren basakeria, non balio duena irabaziak ahalik eta kostu gutxienaren bidez lortzea den. Banketxe amerikarrek pentsatu zuten baliabide gutxikoei maileguak emanez gero, diru gehiago irabaz zezaketela eta 900.000 milioi dolar eman zituzten kreditutan, “zabor hipoteka”k, alegia. Etxebizitzen balioa beti igotzen joango zela pentsatu zuten, hortaz ez zitzaion axola bezeroek lanpostua galdu eta zorretan geratzea. Finantzario askok uste zuten merkatu higiezinaren gainbehera pentsaezina zela AEBetan. Huts egin zuten. Orain eragin suntsitzaileak nozitzen ari gara. Zikoizkeriak euren aurka egin du! Larriena da hondamendia eragin duen sistema ekonomikoa irabazi garaietan interbentzionismoaren aurkakoa dela, baina galtzen ari denean laguntza publikoa eskatzen du, CEOE espainiarrak egin berri duen bezala. Orain ordain dezatela euren zikoizkeria! Eta ez diru publikoarekin!

Juan Mari Arregi

BAHEA

[Paxkal Indo Seaskako lehendakariak Gaur8n esanak:](#) “Bistan da Frantzian ez garela bakarrak, badira murgiltze planetan dabilzan beste lau sistema: bata, Alsazian; bestea, Okzitania, kalandreta dena; bada bressola, Katalunian eta, laugarrena, diwan, Britainian. Guk [Estatuarekin] zer egingen dugun begira daude beraiek ere negoziatzen hasteko. Parisen badakite gurekin sinatzen dutenak baldintzatuko duela besteekin egin beharko dutena eta pentsatzen dut neurtzen ari direla akordio hori eurentzat sinagarria den edo ez”.

[Benito izeneko erabiltzaileak \[karrajua.org\]\(http://karrajua.org\) blogean euskaltegiek hasi duten kanpainak sarean izan duen oihartzun urriaz esanak:](#) “Ibili, bagabiltza, kalean, metroan, telebistan, buzoian... Eta interneti ez diogu kasurik ere egiten! (salbuespenak albavespen). Gure “target-a”, 40.000 horiek denak, analfabeto digitalak ote dira? Internetekoa matraka baino ez da? Teknologiarena ahoa ederto betetzeko berba potoloa besterik ez? Akaso hemen azken batean balio duena betikoa da, eta kitto? Akaso bai”.



Abertzaletasuna, gatazkaren zurrumbiloen harrapatua

UDAKO ATXILOKETA ugarien ondoren, Bizkaia Komandoa deseginda zegoela entzun genuen eta, enegarrenez, ETA oso ahul zegoela jada. Hori bai, badaezpada ere, polizi agintariek eta politikari ugari, leloarekin konfiantza gehiegirik ez barreatzeko edo, zera gehitzen diote, ETAK oraindik baduela atentatuak egin eta hiltzeko indarrak. Luis Conde de la Cruz militar espainiarrarena izan da ETAK eragindako azken heriotza horietakoa.

Eta Santoña koaren aurretik, Ondarroan eta Gasteizen ere bonba-autoek txikizio eta zauritu ugari utzi dituzte. Ondarroakoan Ertzaintzaren komisaldegiko ertzainak helburu baziren ere, ez zen hildakorik izan. Eta asteke laugarren saiora atzera eginez, hilaren 17an, Basauriko polizia nazional bat bizirik atera zen bere autoaren azpian jarritako lehergailuak eztanda egin ez zuelako.

Behin eta berriro ETAK kolpe handiak jasaten baditu ere, berrosaketarako eta erasorako duen ahalmenaren erakusgarri dira atentatu hauek. Urteak aurrera egin ahala gero eta sinesgarritasun gutxiago du ETArekiko polizi garaipenarenak.

Dagoeneko sinesgaitza den moduan, ETAK behartutako negoziazio batetik bere borrokaren helburu historikoak –autodeterminazioa eta lurraldetasuna– lortuko direnik. Alabaina, herri honetako bizitza politikoaren gurpilak nagusiki jira-bira horretan jarraitzen du.

ESPAINIAKO ESTATUAK antza, aspaldi ikasi zuen polizi indarrekin soilik eta bakarrik ETArekin aurka eginez, ez zuela berau garaituko. Horrexegatik ekin zion ezker abertzale osoa errepresioz zokoratzeari. Estatuaren oldartze horren kapi-



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

tulu latzenetakoa bizi izan da iragan astean: EAE-ANV eta EHA-Kren ilegalizazioak, eta AAB eta Askatasuneko 21 kideren aurkako 200 urteko espetxe zigorra. Ezker abertzaleko errepresaliatuen aldeko sostengu lana bideratu eta bere diskurtso ofizialaren masa borrokaren antolatzaile izateak 10 urteko espetxe zigorra merezi badu, neurri juridiko-politiko horiek borroka armatua elikatu besterik ez dute egiten.

Ramon Jauregi PSOEko buruzagari aurten egindako elkarrizketa batean irakurri nion urteetan ezker abertzaleko alor politikoa indartu guran aritu direla, horrela alor politikoak militarri gain hartuko ziolakoan. Baina horrek ez duela emaitzarik izan eta, beraz, politikan jardun nahi duenak ezingo duela ETA justifikatu. Politikan legez aritzekotan, beraz, ETArekin jarduera gaitzetsi beharko dela, bestela jai. 1997an espetxeratu zuten HBko Mahai Nazionala Alternatiba Demokratikoa kanpainaren bideoa zabaltzeagatik. Oraindik ere alderdien ilegalizazio bidea finkatu barik bazegoen ere, hura izan daiteke garai berri honen guztiaren hastapena. Dagoeneko hamaika urte estrategia berean dihardutela,

eta gurpilak bere horretan jarraitzen du.

Ezker abertzaleak ere bere ondorioak atera beharko ditu, batez ere egoera honek bere helburuetan aurrera egitea zein neurritan ahalbideratzen duen beste behin ere berraztertuz. Azken finean, abertzaletasuna bera da gatazka bortitzaren zurrumbilo honetan harrapatua dagoena. Bere baitan halako oinordekotza dakarren ideologiak erakargarritasun potentzialitate handia galtzen du belaunaldi berrien aurrean.

EKONOMI KRISIAREN azken urratsek mundua astindu dute berriz ere. Lehen urratsean aberatsen mundua batez ere, baina ezaguna da bigarren urratsean herritarren ganako eragina lehen mailakoa dela. Batetik, krisiak hedatzen jarraituko duelako eta, bestetik, herritarren sosa aberatsen arazak konpontzeko barra-barra erabil daitezkeen ateak zabaldu dituelako Bush Administrazioak.

Krisi honen klabeak aztertzeke idazten diren analisi guztietatik, oraingoz ondorio bat da argi nabarmentzen dena: krisia hasi besterik ez da egin.